

## XEDAPEN OROKORRAK

### EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA OGASUN ETA FINANTZA SAILA

## 3453

*151/2015 DEKRETUA, uztailaren 27koa, enpresak finantzatzeko abal publikoak emateko ezohiko programa bat garatzen duena.*

Egungo krisi ekonomikoaren bereizgarrietako bat honako hau da: nabarmen uzkuritu dira Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-sektorea finantzatzeko ohiko iturriak, merkataritza-trafiko arruntari lotuta daudenak.

Finantziazio-gabezia hori arintzeko, 2009-2010, 2011, 2012, 2013 eta 2014. urteetan abal-programa bat proposatu zen –hurrenez hurren, otsailaren 16ko 52/2010 Dekretua (martxoaren 16ko EHAA, 51. zk.), ekainaren 14ko 125/2011 Dekretua (ekainaren 24ko EHAA, 120. zk.), uztailaren 10eko 127/2012 Dekretua (uztailaren 19ko EHAA, 141. zk.), irailaren 24ko 416/2013 Dekretua (urriaren 14ko EHAA, 196. zk.) eta ekainaren 17ko 11/2014 Dekretua (uztailaren 2ko EHAA, 124. zk.)–. Programa horren xedea da gure ekonomiarako eta enplegurako ezinbestekoa den enpresa-kolektibora bereziki bideratutako kapital zirkulatzaila finantzatzea. Hartara, enpresa horiek, bakarrik edo beste batzuekin lankidetzan, garrantzizko proiektuetan sartzeko aukera zuten, nazioartean batez ere, eta proiektu horiek garatuz eta gauzatuz, eskari berriak ekarri Euskal Autonomia Erkidegoko hornitzaileei.

Enpresa traktoreek gauzatzen duten eragiketa mota horrek asko lagundu du gure industria-sareak jarraitutasuna izan dezan produkzio- eta enplegu-alorretan.

52/2010 eta 125/2011 Dekretuek honako oinarri hauek zituzten: batetik, EEren Itunaren 87. artikularen 3. paragrafoko b) idatzi-zatia; eta, bestetik, itunarekin bateragarriak diren laguntzak ematea ahalbidetzen duen Batzordearen Komunikazio hau: «Europar Batasunaren aldi baterako esparrua, egungo ekonomia- eta finantza-krisialdian finantzaketa eskuratzen laguntzeko estatu-laguntzen neurriei aplikatu beharrekoa». Bestalde, 127/2012 Dekretuak, 416/2013 Dekretuak eta 11/2014 Dekretuak bete egiten zuten Batzordearen komunikazio honetan ezarritakoa: EEren Itunaren 87. eta 88. artikulua estatuek berme gisa emandako laguntzei aplikatzeari buruzko Komunikazioan ezarritakoa, alegia.

Izan ere, berme gisa emandako laguntzak onartzeko araubide bat ezartzerakoan, bete beharra dago Batzordearen komunikazio honetan ezarritako jarraibideak: EBren Itunaren 87. eta 88. artikulua estatuek berme gisa emandako laguntzei aplikatzeari buruzko komunikazioa (2008-06-20ko EBAO, 155/10).

Komunikazio horren arabera, estatu-laguntza mota hori barne-merkatuarekin bateragarritzat joko du Batzordeak, Itunaren 87.1 artikuluari jarraikiz, betiere honako baldintza hauek betetzen badira:

- Enpresa krisi-egoeran ez egotea;
- Bermea finantza-transakzio espezifikoei loturik egotea, eta transakzio horiek iraunaldi eta zenbateko mugatuak izatea;
- Bermeak ezingo du estali maileguaren edo bete gabeko beste finantza-obligazioen baten % 80 baino gehiago;
- Bermegatik ordaintzen den prezioa merkatuan oinarritua egotea;

Enpresa-sektorea gure autonomia-erkidegoaren oinarrizko euskarria izanik, Eusko Jaurlaritzak sektore horri eustearen aldeko jarrera aktiboa dauka, eta, ildo horretatik, uste du ezohiko programa honi eutsi beharra dagoela, hain zuzen ere sektorean, eskualde-mailan, ekonomiki edo gizarteari begira daukaten garrantziarengatik halako neurri bat justifikatzen duten enpresa-proiektuei laguntzeko.

Laguntza hauek ETEen edo ETE-taldeen inbertsioak edo kapital zirkulatzailerako finantzatzeko abal publikoak emanez gauzatuko dira, garrantzi berezia emango zaiolarik industria- eta enplegu-ehundura mantentzeko. Laguntzak, bestalde, publikotasun-, lehia- eta objektibotasun-printzipioei jarraituz emango dira.

Ezohiko Programa horrek aplikatu beharreko Europako Zuzentarauak kontuan hartu eta errespetatzen ditu, eta Europako Erkidegoak ezarritako laguntza-tipologiara egokituta dago, baita laguntza horiek baimentzeko oinarrizko baldintzetara ere.

Araubidea zehazteko, oinarrizkat hartuko dira Batzordeak emandako Komunikazio honetako xedapenak: Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren (EBFI) 107. artikulua estatuek berme gisa emandako laguntzei aplikatzeari buruzko Komunikazioa.

Programa hau, halaber, Aurrekontu Orokorren araubidera egokitzen da, eta, ildo horretatik, 2015. urtean eman beharreko abalen gehieneko zenbatekoa 100 milioi eurokoa izango da, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko 2015. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2014 Legearen 9. artikuluan finkatutako mugen barruan.

Ezohiko programa honetan, 2012an, 2013an eta 2014an aplikatutako jardun-irizpideei eutsi zaie; hona hemen nabarmenenak:

- Laguntza hauek salbuespenezkoak dira: izan ere, eskabideak izapidetzea onartu aurretik, hainbat ezaugarri betetzea eskatzen da.

- Laguntza finalistaren kontzeptua: proiektu, eskaera edo kontratu jakin bati zuzenduta dago.

- Abal publikoaren figura erabiltzea finantza-erakundearen finantziarioa lortzeko baliabide orokor gisa.

- Aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertzeko, ebaluatzeko eta bideratzeko beharrezkotzat hartzen den informazio eta dokumentazio oro aurkezteko obligazioa.

- Enpleguari eusteko konpromisoa idatziz adieraztea.

- Abal publikoaren bitartez lortutako finantza-baldintzak enpresa hornitzaileei besterenduko zaizkiela adierazten duen idatzizko konpromisoa.

- Eusko Jaurlaritzaren aurretiazko baimena izan behar da, baldin eta akzioak hirugarren batzuei eskualdatzen bazaizkie, eta horrek enpresaren kontrola aldatzea ekartzen badu.

- Aurkeztutako proiektuak, eskaerak edo kontratuak ebaluatzeko metodologia, enpresa-proiektuaren tratamendu unitarioaren printzipioak abian jarriko dituen; enpresak jasotako laguntza guztiak kontuan hartuko dituen leihatila bakarra; eta, halaber, aurkeztutako proiektuaren koherentziari eta bideragarritasunari buruz Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak egindako industria-ebaluazioa, eta finantza-ebaluazioa, horretarako sortutako Ebaluazio eta Jarraipen Batzordeak egina.

Ondorioz, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren eta Ogasun eta Finantze-tako sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2015eko uztailaren 27an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

## XEDATZEN DUT:

## 1. artikulua.– Xedea.

Dekretu honen xedea da, alde batetik, industria- eta enplegu-sareari eusten garrantzi nabaria duten Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei edo enpresa-taldeei abal publikoak emateko ezohiko programa bat ezartzea, kapital zirkulatzailaren premiak estaltzeko banku-finantziarioa lortzea ahalbidetuko diona, eta, beste alde batetik, finantzazio hori lortzeko baldintzak eta prozedura arautzea.

## 2. artikulua.– Diru-baliabideak.

1.– Abalen bidez, 100.000.000 euro emango dira, gehienez, 2015eko ekitaldian. Muga horretaz gainera, dekretu honen babesean emandako abalek, Euskal Autonomia Erkidegoko 2015eko Aurrekontu Orokorren Legearen 9.1 artikulua mendeko gainerako bermeekin batera, ezingo dute gainditu arau horretan ezarritako zenbatekoa.

2.– Dekretu honen babespean araututako eta deitutako abalak publikotasun-, lehia- eta objektibotasun-printzipioei jarraituz emango dira. Abalak eskatzeko espedienteak modu ordenatuan ebatziko dira, dekretu honetan eskatutako dokumentazio guztiarekin osatuta geratzen diren unearen arabera.

3.– Laguntzak emateko ezarritako diru-zenbatekoa agortuz gero, Ogasuneko eta Finantza Politikako sailburuordeak egoera horren berri emango du administrazio-ebazpen baten bidez, eta ebazpen horretan kreditua noiz agortu den azaldu beharko du. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta ez da onartuko une horretatik aurrera aurkeztu den eskabiderik.

4.– Dagoeneko aurkeztu diren eta izapide-fasean dauden eskabideak ezin badira erantzun esleitutako aurrekontu-hornidura agortuta egoteagatik, ezetsi egingo dira arrazoi hori dela-eta, Industria Garatzeko zuzendariaren administrazio-ebazpen bitartez ezetsi ere.

5.– Abalen bidez emango den gehieneko zenbatekoa eguneratu ahal izango da Gobernu Kontseiluaren erabaki bidez. Halakorik gertatuz gero, horren berri eman beharko da, Ogasuneko eta Finantza Politikako sailburuordearen ebazpen bidez.

## 3. artikulua.– Laguntzak.

1.– Dekretu honen arabera garatu den ezohiko programan aurreikusitako laguntzak honela gauzatuko dira: industria-sareari eta enplegu-sareari eusteko garrantzi berezia duten ETEei edo ETE-taldeein inbertsioak edo kapital zirkulatzaila finantzatzeko abal publikoak emanez.

2.– Enpresa handi bat eta ETE bat bereizteko, enpresa txikien eta enpresa ertainen definizioari buruz Europako Batzordeak 2003ko maiatzaren 6an emandako Gomendioan (2003-05-20ko EBAO, L 124/36) ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan, edo hori ordeztu edo aldatzen duten xedapenetan ezarritakoak.

Zehazki, enpresa txiki eta ertainen kategorian, honako baldintza hauek betetzen dituzten enpresak sartuko dira:

– 250 langile baino gutxiago dituztenak.

– Urteko negozio-bolumena gehienez 50 milioi eurokoa duten enpresak, edo, bestela, urteko balantze orokorra gehienez 43 milioi eurokoa dutenak.

– Zuzenean edo zeharka, haren kapitalaren % 25 edo gehiagoko partaidetza ez izatea aurretik adierazitako baldintzaren bat betetzen ez duen enpresa batek edo batzuek batera.

#### 4. artikulua.– Enpresa onuradunak.

1.– Abalen ezohiko programaren onuradun izango dira erauzketako industria-enpresak, eraldaketakoak, ekoizpenekoak, horiekin guztiekin lotutako zerbitzu teknikoak ematen dituztenak (produktu-prozesuari lotutakoak), informazioaren eta komunikazioen sozietatearen eremukoak, betiere teknologian edo berrikuntzan oinarrituta badaude, lantokia eta/edo ustiaketa-zentroa Euskal Autonomia Erkidegoan badute eta beste baldintza hauek betetzen badituzte:

– Eragin traktorea edo enplegurako eragin berezia duten inbertsio-proiektuak, eskaerak edo kontratuak aurkeztea.

– Inbertsio-proiektuak, eskaerak edo kontratuak beren baliabideak erabiliz finantzatzeko zailtasunak dituzten enpresak edo enpresa-taldeak izatea, eta egungo finantza-krisia dela medio behar duten finantzazioa lortu ezinda ibiltzea.

– Egun bizi duten egoera ekonomikoa eta finantza-egoera nahiz etorkizuneko itxaropenak kontuan hartuta, abalaturako finantza-eragiketa itzultzeko behar adinako ahalmena izango dutela ondorioztatzea.

2.– Krisialdian ez dauden enpresei soilik emango zaie laguntza.

3.– Laguntza ez zaie aplikatuko esportazio-kredituen bermeei.

4.– Kanpoan geratuko dira, halaber, berreskuratzeko agindu baten mende dauden enpresak, Batzordeak aurretiaz hartutako erabaki baten bidez laguntza bat legez kanpokotzat eta barne-merkatuarekin bateraezintzat jo izanaren ondorioz.

5.– Dekretu honek arautzen dituen abalak enpresa onuradunei eman ahal izateko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi den eta oraindik tramitazioan dagoen edozein itzulketar- edo zehapen-prozedura amaituta egotea, bai eta eskatzaileak administrazio horrekin exekuzio-aldian zorrik ez izatea.

6.– Enpresa eskatzaileek, laguntzen onuradun izateko, ez dute izan behar zigor- eta administrazio-arloko zehapenik, diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarrenik, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne hartuta, betiere Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, k, azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoarekin bat etorriz.

#### 5. artikulua.– Krisi-egoeran dagoen enpresa.

1.– ETE bat krisi-egoeran dagoela jotzeko, aintzat hartuko da Kategorien Araberako Salbuespenen Erregelamendu Orokorraren 2.18 artikuluan zehaztutakoa (2014-06-26ko EBAO, L 187/1).

2.– Hasiera batean, enpresa bat krisi-egoeran dagoela esango dugu honako zirkunstantzia hauen arabera:

i) Bazkideek erantzukizun mugatua duten sozietate bat izanik, sinatutako kapitalaren erdia baino gehiago desagertu bada, eta kapital horren laurdena baino gehiago galdu bada azken hamabi hila-beteotan, edo

ii) Erantzukizun mugagabea duen sozietatea izanik, sozietate horren berezko funtsen erdia baino gehiago desagertu bada, sozietatearen liburuetan azaltzen denaren arabera, eta funtsen laurdena baino gehiago galdu bada azken hamabi hilabeteotan, edo

iii) Enpresa mota guztiei dagokienez, lehiaketa-prozedura batean parte hartzeko baldintza guztiak betetzen badituzte.

#### 6. artikulua.– Finantza daitezkeen proiektuak.

Honako hauek izango dira finantza daitezkeen proiektuak: haien ezaugarriak direla medio, gauzatzeko finantziario lotu handia behar duten inbertsio-proiektuak, eskaerak edo kontratuak.

Nolanahi ere, araubide honetan ezarritako laguntzak ematerakoan, aintzat hartuko da proiektuak, eskaerak edo kontratuak nolako irismen estrategikoa eta garrantzi berezia daukaten sektorean eta enplegu-arloan bultzada emateko.

Honako alderdi hauekin lotura duten proiektuak hartuko dira finantzagarriztat:

– Inbertsio-proiektuak, eskaerak edo kontratuak, betiere horiek gauzatzeko enpresa-arloko itunak edo ekimenak elkarrekin osatzen badira, eta horrekin merkatu berriak irekitzen badira eta Euskadiko enpresa-sarea nazioartean birkokatzen bada.

– Berregituratzeko neurriak aplikatu dituzten enpresek lortutako inbertsio-proiektu, eskaera edo kontratuak, betiere, proiektu, eskaera edo kontratuaren ondorioz, enpresan enplegua hobetzen, finkatzen eta garatzen bada.

– Euskadiko enpresa-sarean ehuneko esanguratsuetan zuzeneko trakzio-eragina duten inbertsio-proiektuak, eskaerak edo kontratuak.

– Inplikaturako enpresa hornitzaileen katearekin arazoizko ordainketa-akordioak egitea dakarten inbertsio-proiektuak, eskaerak edo kontratuak, betiere saihesten bada ordainketa-praktika txarrak eta finantza-estutasuna enpresa haiengana zabaltzea.

#### 7. artikulua.– Abal-eragiketen ezaugarriak.

1.– Dekretu honen arabera emandako finantza-abalek enpresa onuradunen diru-arriskuak bermatuko dituzte Finantza Erakundearen aurrean, hau da, laguntzaren xede diren inbertsio-proiektuak, eskaerak edo kontratuak gauzatzeko behar diren finantza-eragiketek eragindako diru-arriskuak.

2.– Abalaren zenbatekoa inbertsio-proiektuari, eskaerari edo kontratuari lotutako finantza-eragiketaren nominalaren % 30 izango da, oro har. Abalatutako zenbateko nominalera luzatuko da abala, gehienez, eta zenbateko horren interesen 6 hilabetera, gehienez.

3.– Irizpide orokortzat hartuta, abalaren epea 24 hilabete izango da; epe hori gainditu ahal izango da inbertsio-proiektuaren, eskaeraren edo kontratuaren bideragarritasunak edo iraupenak halakorik justifikatzen badute.

4.– Abalek urteko komisioa edo prima sorraraziko dute Eusko Jaurlaritzaren alde, baina ez da beste komisio edo gastu gehigarriarik aplikatuko. Zenbateko hori aldeztu aurretik kitatuko da, abal-eragiketa formalizatu zeneko urteurren bakoitzean, abalatutako finantza-eragiketaren saldo biziaren gainean.

5.– Abalaren urteko prima edo komisioa kalkulatzeko, Batzordearen 155/10 Komunikazioaren 3.3 paragrafoan ezarritako xedapenak –I. eranskinean jasotakoak–hartuko dira aintzat (komunika-

zio hori EEren Itunaren 87. eta 88. artikulua estatuek berme gisa emandako laguntzei aplikatzeari buruzkoa da).

6.– Abalatutako zenbatekoa itzuliko dela bermatze aldera, enpresa onuradunaren erantzukizun pertsonalaz gain, Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritzak abala emateko beharrezkotzat jotzen dituen kontrabermeak eskatu ahal izango ditu. Halakoak eskatzen badira, enpresa onuradunak kontrabermeok eratu beharko ditu, abal publikoa formalizatu baino lehen.

7.– Euskal Autonomia Erkidegoak Bermeak emateari buruzko martxoaren 18ko 54/1997 Dekretuaren 3.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritzak, Berme Erregistroaren organo kudeatzailea den aldetik, txosten bat egingo du, abala emateko erabakia hartu baino lehen. Txosten horretan, honako hauek bilduko ditu: Euskal Autonomia Erkidegoaren Finantzei buruzko azaroaren 8ko 8/1996 Legearen 37. artikuluan ezarritako muga agortu gabe dagoela; eragiketaren ezaugarri ekonomiko-finantzarioak eta abala bermatzeko neurriak zein diren, eta enpresa eskatzaileak ez daukala exekuzio-aldiko zorrik Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin.

Eragiketaren ezaugarri ekonomiko-finantzarioei dagokienez, Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritzak 8.4.h) artikuluan eskatzen den dokumentazioa aztertuko du. Eragiketaren edukia merkatuaren baldintza objektiboetara egokituko da, eta, gainera, sektore publikoaren bermea izan beharko du, bai eta berme horrek kobrantzan dakarren segurtasuna ere.

8.– Abalatutako finantza-eragiketak eurotan egingo dira. Eragiketa atzerriko txanponen batean gauzatu nahi izanez gero, beharrezkoak izango dira Ogasun eta Finantza Sailaren onespina eta Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritzaren aldeko txostena.

8. artikulua.– Eskabideak eta dokumentazioa.

1.– Dekretu honetan ezarritakoari jarraikiz, hemen aurreikusitako laguntzak jaso ahal izateko baldintzak betetzen dituztenek Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Industria Garatzeko Zuzendaritzara bidali behar dituzte eskaerak eta gainerako agiri osagarriak, eta toki hauetako batean aurkeztu: zuzendaritza horretan bertan (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba); sail horretako lurralde-ordezkaritzetan, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako lekuetan.

2.– Eskaerak aurkezteko epea 2015eko azaroaren 13ko 00:00etan amaituko da, adierazitako zenbatekoa lehenago agortzen ez bada.

3.– Erakunde eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duenak sinatuko du eskaera.

4.– Enpresa eskatzaileak, II. eranskinean azaltzen den eskabidea betetzeaz gain, memoria bat erantsi beharko du, gutxienez honako informazio hau bilduko duena:

a) Azken urteotan enpresak nolako bilakaera izan duen, eta, hala badagokio, krisialdi ekonomikoari aurre egiteko enpresa barruan zer neurri hartu diren.

b) Enpresak bere bitartekoak erabiliz inbertsio-proiektuari, eskaerari edo kontratuari ezin diola aurre egin egiaztatzen duen txostena. Han zehaztu beharko da enpresak eta langileek zer ahalegin egin dituzten azken bi urte hauetako dibidenduak banatzeko politikari eta soldata-politikari dagokienez, baita ondorengo bi urteetarako aurreikusitako politikari dagokionez ere.

c) Merkatuaren bilakaeraren gaineko hipotesien azterketa, merkatu-azterketatik ateratzen diren hipotesiena.

d) Enpresak EAEko enpresa-sarean duen integrazio-maila: trakzio-efektua.

e) Enpresa eta haren nazioartekotze-maila.

f) Salbuespenezko esku-hartzearen oinarri den inbertsio-proiektuaren, eskaeraren edo kontratuaren deskribapena.

g) Bermatu beharreko eragiketa nagusiari buruzko memoria ekonomikoa eta finantza-arlokoa. Inbertsio-proiektuaren, eskaeraren edo kontratuaren ondorioz zirkulatzailerako finantzatzeko sortzen diren premien deskribapena.

h) Abalatu beharreko finantzaketa-eragiketa(k) formalizatzeko baldintzak.

i) Enpresa eskatzaileak eskaintako kontrabermeen deskribapena, honako hauek bilduko dituen erantzukizun-aitorpen bat barne duela: enpresaren aktiboak osatzen dituzten ondasun edo eskubideen deskribapena –ekoizpen-prozesuari lotutakoena zein lotu gabekoena–; ondasun eta eskubide horien balorazio erreala, balorazio-irizpide orokorren arabera egina; eta ondasun edo eskubide horiek dituzten zamei buruzko xehetasunak.

j) Enpresa hornitzaileei bideratutako finantziario-baldintzak, betiere horiek betetzeko konpromisoa hartuta.

k) Emaizta Kontuen Aurreikuspena indarreko urterako eta datozen bi urteetarako, eta sentsibilitate-azterketa bat, merkatuaren bilakaerari buruzko hainbat hipotesi oinarri hartuta.

l) Abala formalizatu ostean, eta data horretatik zenbatzen hasita hiru urteko epean, enpresak edo enpresa-taldeak, hirugarrenei akzioak besterentzen badizkie eta horrek kontrol-aldaketa badakar, konpromisoa hartuko du Eusko Jaurlaritzari aurretiaz horretarako baimena eskatzeko.

l) Enpresak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloarekin hartutako gizarte-konpromisoen berri emango du: berdintasunaren aldeko erakunde laguntzailearen ziurtagiriak izatea, jazarpen sexistaren aukako jardun-protokoloak, lana eta familia bateratzeko neurriak...

5.– Honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

a) Enpresa eskatzailea eratu zeneko eskrituraren fotokopia, eta eskritura horrek izandako aldatketena, halakorik izan bada.

b) Identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.

c) Eskatzailearen ordezkatze-ahalordearen fotokopia.

d) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta izatearen egiaztatzea.

e) Zerga-betebeharrak beteta izatearen egiaztatzea.

f) Azken bi ekitaldietako Urteko Kontu Ikuskatuen fotokopia; horiek izan ezean, Sozietate Zergaren azkeneko bi aitortzenen fotokopia.

6.– Interesduna edozein motatako enpresa-taldea baldin bada, eskaera bakarra aurkeztuko da; taldea osatzen duen enpresa batek –partaidetzaren ehuneko handiena duelako edo beste edozein arrazoiengatik– bere gain hartu beharko ditu eragiketaren martxa onerako beharrezkoak diren Administrazioarekiko elkarriketa- eta harreman-funtzio guztiak.

Hori guztia esanbidez adieraziko da eskaeran; enpresa arduradunak ez ezik, gainerako enpresa parte-hartzaile guztiek ere sinatu beharko dute eskaera.

Eskaerarekin batera, artikuluko honen 4. eta 5. paragrafoetan aipatutako dokumentazioa ere aurkeztu beharko da, taldea osatzen duen enpresa bakoitzari dagokionez.

Horretaz gain, jakinarazpenei dagokienez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 33. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

7.– Enpresa eskatzaileak gezurrezko datuen bat ematen badu eskaeran eta, bereziki, eskaeran bildutako erantzukizunpeko adierazpenetan, administrazio-zigorak eta zigor penalak ezarri ahal izango zaizkio, indarrean dagoen zigor-araubideari jarraituz.

8.– Edonola ere, Industria Garatzeko Zuzendaritzak beharrezko irizitako bestelako argibide eta/edo agiri osagarriak eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari, aurkeztutako eskabidean adierazitakoa egoki ulertzeko, ebaluatzeko eta eskabidea izapidetzeko.

9.– Ez da aurkeztu beharrik izango dagoeneko Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren esku dauden indarreko dokumentuak. Kasu horretan, eskatzaileak eskabidean adierazi beharko du zer egunetan eta zer organo edo bulegotan aurkeztu zituen aipatutako dokumentuak, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. artikuluko f) idatzi-zatian ezarritako baldintzei jarraikiz.

10.– Eskatzaileek eurek aukeratu duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute laguntza jasotzeko eskaera, dokumentazioarekin batera. Gainera, laguntza-eskaeratik eratorritako jarduntan eta prozedura osoan, eskatzaileak aukeratutako hizkuntza baliatuko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legean ezarritakoaren arabera.

9. artikulua.– Akatsak zuzentzea.

Industria Garatzeko Zuzendaritzak ikusten badu aurkeztutako eskabidean akatsen bat edota zehaztasun faltaren bat dagoela, eskatzaileari jakinaraziko dio, eta 10 eguneko epea emango, akatsak zuzen ditzan; halaber, jakinaraziko zaio ezen, hori horrela egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Epe hori igarota, egin beharreko zuzenketak egin ez badira, Industria Garatzeko zuzendariak eskabidea bertan behera geratu dela adierazteko ebazpena emango du, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 42. eta 71.1 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

10. artikulua.– Ebaluazioa eta jarraipena egiteko Batzordea.

1.– Aurkezten diren eskaeren ebaluazioa eta segimendua egiteko, batzorde bat eratuko dute Ogasun eta Finantza Politikako sailburuordeak –batzordeburu arituko da–, Industriako sailburuordeak, Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako zuzendariak eta Industria Garatzeko zuzendariak –idazkari arituko da azken hori.

2.– Batzorde horrek xede izango du aurkeztu diren eskabideak ebaluatzea eta laguntza emateko edo ukatzeko erabaki-proposamenak egitea. Horrekin batera, dekretu honen ondorioz emandako abalen jarraipena egingo du.

Horren haritik, Industria Garatzeko Zuzendaritzak jasotako abal-eskabideen berri emango die Batzordeko kideei, bai eta abalak emateko ebazpenen berri ere. Era berean, enpresa onuradunek betebeharrak betetzen dituzten ala ez adierazten duten txostenak bidaliko ditu, baita atzemandako ez-betetzeak eta kasu horretan aplikatu beharreko neurriei buruzko proposamena ere.

11. artikulua.– Abala emateko erabakia.

1.– Jaurilaritzaren Kontseiluak abala emateko oniritzia emango du eta haren zenbatekoa zehaztuko, eta, horretarako, gehienez hiru hilabeteko epea izango du, eskatutako dokumentazio guztia



jaso eta hurrengo egunetik aurrera; horrekin batera, zehaztu egingo ditu abalaren gehieneko zenbatekoa, epea eta beste baldintza batzuk, baldin eta baleude, eta aplikatuko den Europako araudia ere finkatuko du. Industria Garatzeko zuzendariak egingo du abala emateko jakinarazpena, aipatutako epean.

Aurreko paragrafoan adierazitako epea bukatu eta abalaren gaineko erabakirik hartu eta jakinarazi ez bada, eskabidea ezetsizat joko da, administrazio-prozedurari buruzko araudiaren ondorioetarako.

2.– Erabakiak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, berorren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta biharamunetik aurrera, hargatik eragotzi gabe aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztea, Jaurlaritzaren Kontseiluaren aurrean, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

3.– Halaber, eskaerak betetzen ez baditu abalak lortzeko betekizunak, eskatutako abala ukatzeko ebazpena emango du Industria Garatzeko zuzendariak, Ebaluazio Batzordearen proposamenaz. Emandako ebazpenak ez dio amaiera emango administrazio-bideari, eta, berorren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Industriako sailburuordeari, azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako epean eta moduan. Errekurtsoa aztertuta, erakunde errekurtso-egileak han adierazitako arrazoiak aintzat hartzeko modukoak direla iritziz gero, Industriako sailburuordeak abala emateko proposamena helaraziko dio Jaurlaritzaren Kontseiluari, dagokion erabakia har dezan.

4.– Abala emateko erabakiak eskatzaile bakoitzari jakinarazteaz gain, emandako abalen onuradunen zerrenda eta abalen zenbatekoak argitara emango dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen Testu Bateginaren 49.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

## 12. artikulua.– Finantza-eragiketa formalizatzea.

1.– Abala emateko erabakia jakinarazi ondoren, gehienez hilabeteko epean gauzatuko dira bermatutako finantza-eragiketaren eta abal-kontratuaren eragiketa. Nolanahi ere, Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritzak epe hori luzatzea izango du –interesdunak berak eskatuta eta horretarako arrazoiak emanda–, luzapena eragiten duten inguruabarrak aztertu ondoren.

2.– Ogasuneko eta Finantza Politikako sailburuordeak gauzatuko du abal-kontratua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean, betiere Euskal Autonomia Erkidegoak bermeak emateari buruzko martxoaren 18ko 54/1997 Dekretuaren 6.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

## 13. artikulua.– Diru-laguntzen bateragarritasuna.

1.– Eragiketetan, Batzordearen C155/10 Komunikazioan zehaztutakoa bete beharko da (C155/10 Komunikazioa, EBren Itunaren 87. eta 88. artikulua estatuek berme gisa emandako laguntzei aplikatzeari buruzkoa; 2008-06-20ko EBAO).

2.– Dekretu honen babespean emandako abalak bateragarriak izango dira Administrazio Publikoek emandako beste edozeinekin.

Abalaren zenbatekoak, beste administrazio publiko batzuek helburu bera lortzeko emandako laguntzekin batera, ezin izango du gainditu proiektu, eskaera edo kontratuaren zenbatekoaren % 80, betiere Batzordearen C155/10 Komunikazioaren 3.2.c) atalean ezarritakoarekin bat etorriz (artikulu honetako 1. paragrafoan aipatu da komunikazio hori).

Muga hori gaindituz gero, dekretu honen babespean emandako abala gutxituko da, soberakinarri dagokion zenbatekoa kenduta.

3.– Abalen onuradunek nahitaez jakinarazi beharko diote Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari beste diru-laguntza, laguntza edo abal batzuk jaso dituzten helburu bera lortzeko, baita hasitako zergalditik nahiz aurreko bi zergaldietatik gaur egun arte helburu bera lortzeko minimis laguntzak jaso dituzten ere.

#### 14. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Enpresa onuradunak ez badu betetzen abala emateko erabakian eta aplikatu beharreko gainerako arauetan ezarritako baldintzaren bat, Jaurlaritzaren Kontseiluak, dagokion ebazpenaren bitartez, eta Ebaluazioa eta Jarraipena egiteko Batzordearen proposamenez, adieraziko du enpresak abala jasotzeko eskubidea galdu duela eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa abal-emaile gisa dituen erantzukizunetatik aske utzi beharko dela. Zirkunstantzia hori ezinezkoa bada hartzekodun nagusiak uko egiten diolako, abalak urtean % 3,5eko komisioa sorraraziko du mugaeguna iritsi arte.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak zenbatekoaren zati bat edo zenbateko osoa ordaindu behar badu onuradunak ordaindu ez duelako, Euskal Autonomia Erkidegoko Finantzei buruzko azaroaren 8ko 8/1996 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoak bermeak emateari buruzko martxoaren 18ko 54/1997 Dekretuan ezarritakoari jarraituko zaio.

#### 15. artikulua.– Enpresa onuradunen betebeharrak.

Dekretu honetan araututako abalak jasotzen dituzten enpresa onuradunek honako betebeharrak izango dituzte, kasu guztietan:

a) Emandako abala onartzea. Alde horretatik, abala eman izanaren jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean enpresa onuradunek esanbidez eta idazki bidez abalari uko egiten ez badiote, abala onartutzat hartuko da.

b) Abala zertarako eman den, helburu horretarako erabiltzea.

c) Eskatzen zaien informazio osagarria bidaltzea Industria Garatzeko Zuzendaritzara, Administrazioak egoki irizitako egiaztapenak egin ditzan proiektuaren, eskaeraren edo kontratuaren garapenari eta gauzatzeari buruz.

d) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari beren eginkizunak betez eskatzen duten informazioa eskuratzea, dekretu honen kargura jasotako abalari dagokionez.

e) Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateginaren 50.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz eska daitekeen beste edozein betebeharrak konplitzea.

f) Onuradunek bere egin beharko dituzte administrazioarekin kontratuak eta hitzarmenak egiten dituzten erakundeei eta harengandik laguntzak jasotzen dituztenei 4/2005 Legearen 2.3 artikulua ezartzen dizkien betebeharrak (4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa), hala nola tratatu berdinean oinarritutako printzipioaren mende jardun beharra, aukera-berdintasuna, eta langileen aniztasunari eta diferentziei zor zaien errespetua.

#### 16. artikulua.– Laguntza jasotzeko baldintzak aldatzea.

Abalak emateko kontuan izan diren baldintzak aldatzen badira, abala emateko erabakia ere aldatu ahal izango da.

Betiere, beste administrazio publiko batzuek emandako laguntzak edo abalak lortuz gero eta, hala badagokio, helburu bera lortzeko bestelako diru-sarrera edo baliabideak lortuz gero, abala emateko erabakia aldatu egingo da, abala 13. artikuluan xedatutakoaren arabera egokitzeko.

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko uztailaren 27an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,  
RICARDO GATZAGAETXEBARRIA BASTIDA.

## I. ERANSKINA, UZTAILAREN 27KO 151/2015 DEKRETUARENA

## BERMEEN BALORAZIOA\*

Kreditu-kalitatea	S & P	Fitch	Moody's	Urteko babes-saria
Kalitate bikaina	AAA	AAA	Aaa	% 0,4
Ordainketak egiteko oso gaitasun handia	AA + AA AA -	AA + AA AA -	Aa 1 Aa 2 Aa 3	% 0,4
Ordainketak egiteko gaitasun handia	A + A A -	A + A A -	A 1 A 2 A 3	% 0,55
Ordainketak egiteko gaitasun egokia	BBB + BBB + BBB -	BBB + BBB + BBB -	Baa 1 Baa 2 Baa 3	% 0,8
Ordainketak egiteko gaitasun ahula, baldintzak desegokiak direnean	BB + BB BB -	BB + BB BB -	Ba 1 Ba 2 Ba 3	% 2,0
Oso litekeena da ordainketak egiteko gaitasuna murrizta izatea, baldintza desegokiak ondorioz	B + B B -	B + B - B-	B 1 B 2 B 3	% 3,8  % 6,3
Ordainketak egiteko gaitasuna baldintza egoki iraunkorren mende dago	CCC + CCC CCC - CC	CCC + CCC CCC - CC C	Caa 1 Caa 1 Caa 2 Caa 3	Ezin da urteko babes-saririk eman
Ez betetzea, edo ez-betetze egoeratik gertu	SD D	DDD DD D	Ca C	Ezin da urteko babes-saririk eman

\* Taulan, Standard & Poor's, Fitch eta Moody's, kalifikazio-agentzien kategoriak ageri dira. Bankuen sektorean, gehienetan, agentzi horiek erabiltzen dira kalifikazio-sistema bateratzeko, 3.2 paragrafoaren d) idatzi-zatian azaltzen den eran. Nolanahi ere, kalifikazioak lortzeko, ez da nahitaezkoa agentzia horiek erabiltzea. Izan ere, kalifikazio-sistema nazionalak ere onartzen dira, bai eta bankuek ez-betetzeen ehunekoak kalkulatzeko erabiltzen dituzten kalifikazio-sistemak ere, betiere ez-betetzea gertatzeko probabilitatea urtebeteko epera eskaintzen badute, horixe baita kalifikazio-agentziek enpresak kalifikatzeko erabiltzen duten zifra. Beste sistema batzuk erabiliz gero, antzeko sailkapen bat eskaini behar dute, sailkapen-kode hau baliatuz.

## II. ERANSKINA, UZTAILAREN 27KO 151/2015 DEKRETUARENA

## ESKABIDE-ORRIA

Sozietatearen izena: \_\_\_\_\_

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_ jaunak/andreak (G/E) (markatu dagokiona), \_\_\_\_\_ NAN zenbakia  
duena \_\_\_\_\_

den aldetik (zehaztu enpresan duen ardura: administratzailea, kudeatzailea edo besteren bat)

Honako enpresa honen legezko ordezkaria: \_\_\_\_\_ IFZ:

Enpresaren \_\_\_\_\_ jarduera:

Helbidea: \_\_\_\_\_

Tel.: \_\_\_\_\_ Faxa: \_\_\_\_\_ e-maila: \_\_\_\_\_

Baimena eskatzen du «Euskal Industria Sarean eta enpleguan eragin nabarmena duten enpresei edo enpresa-taldeei finantza-laguntza emateko ezohiko programa»ra atxikitzeko.

PROIEKTUA: Enpresa  Enpresa Taldea  (Bai/Ez, jarri dagokiona)

## ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA:

- Enpresako datuei buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
- Enpresaren eratze-eskrituraren eta horretan egindako aldaketan fotokopia.
- Identifikazio Fiskaleko Txartelaren fotokopia.
- Eskatzailearen ordezkari-taldea-ahalordearen fotokopia.
- Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria
- Gizarte Segurantzarekiko aitortpenerako aurkeztutako azken TCI eredua.
- Azken ekitaldietako urteko kontuak.
- Proiektuari buruzko memoria.

Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak jakinarazten dizu dokumentu hau betez eman dizkiguzun datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula izapidetzeko. Datu horiek Ekonomia eta Ogasun Sailari laga ahal izango zaizkio Finantzaketa Programen kudeaketarako. Eskatzaileak datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango ditu, legez araututako moduan, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean (Donostia kalea 1-01010 Vitoria-Gasteiz).

-----, -----(e)ko -----aren ----- (a)  
Sinadura eta zigilua

## ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Sozietatearen izena: \_\_\_\_\_

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_ jaunak/andreak (G/E) (markatu dagokiona), \_\_\_\_\_  
duena, \_\_\_\_\_

NAN zenbakia

den aldetik (zehaztu enpresan duen ardura: administratzailea, kudeatzailea edo besteren bat)

Honako enpresa honen legezko ordezkaria: \_\_\_\_\_ IFZ: \_\_\_\_\_

**ADIERAZTEN DU:**

1. Bizitokia Euskal Autonomia Erkidegoan duela.
2. Indarreko legediaren arabera, zerga-betebeharrei dagokienez, foru aldundiekin egoera erregularizatua duela, bai eta Eusko Jaurlaritzarekin edo haren edozein sozietate edo erakunderekin ere.
3. Egoera erregularizatua duela Gizarte Segurantzarekin.
4. Honako hauek direla langileei, fakturazioari eta aktiboari buruzko datuak:

	Langile-kopurua		Negozio-bolumena (eurotan)	Urteko balantze orokorra (eurotan)
	G	E		
Ixitako azken ekitaldia				
Ixitako azken-aurreko ekitaldia				
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko erakunde laguntzailearen ziurtagiriak (Emakunde) edo antzekoak; Enpresaren Berdintasun Plana; Jazarpen Sexistaren aukako Protokoloa; Familia eta lana bateragarri egiteko neurriak...	Bai. Zehaztu:	Ez.		

5. Abalututako finantza-eragiketa indarrean dagoen bitartean enpleguari eusteko konpromisoa hartu duela formalki. Aurrekoa betetzen ez bada, Emakida Akordioan eta aplikatu beharreko legedian bildutako erantzukizunak izango ditu.
6. Ez dagoela zigortuta zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin, ezta hartarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean ere ez, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne –Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen Azken Xedapenetatik seigarrenean xedatutakoaren arabera–, eta, gainera, bete egiten duela Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun eragingarriari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45.2 artikuluan ezarritakoa. Era berean, ez dagoela sartuta inongo itzultze- edo zehatze-prozeduratan.  
  
Bere egiten ditu, halaber, Administrazioarekin kontratuak eta hitzarmenak egiten dituzten erakundeei eta harengandik laguntzak jasotzen dituztenei 4/2005 Legearen 2.3 artikulua ezartzen dizkien betebeharrak (4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa), hala nola tratu berdinean oinarritutako printzipioaren mende jardun beharra, aukera-berdintasuna, eta langileen aniztasunari eta diferentziei zor zaien errespetua
7. Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28koa 14/2007 Legean zehaztutakoa betez, Enpresa eskatzaileak jarduten al du armak produzitzen, merkaturatzen eta finantzatzen?

Bai  Ez  (jarri dagokiona)-----**(e)ko**-----**aren**-----**(a)**  
Sinadura eta zigilua

2015eko abuztuaren 7a, ostirala

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK, ESTATUEK BERME GISA EMANDAKO LAGUNTZEI BURUZ BATZORDEAK EGINDAKO KOMUNIKAZIOAREKIN LOTURA DUTENAK (2008/C155/02)				
<b>A IDENTIFIKAZIO DATUAK</b>				
IZEN-ABIZENAK EDO ENPRESAREN IZENA				IFZ
HELBIDEA (KALEA/PLAZA, ZENBAKIA ETA ATEA)				PK
UDALERRIA			PROBINTZIA	
<b>B ENPRESAREN/ERAKUNDEAREN DATUAK</b>				
LEGEZKO ORDEZKARIAREN IZEN-ABIZENAK				IFK
HELBIDEA (KALEA/PLAZA, ZENBAKIA ETA ATEA)				PK
UDALERRIA			PROBINTZIA	
<b>C ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK</b>				
1. Honako hau <b>ADIERAZTEN DU</b> diruz lagundu daitezkeen kostu berei dagokienez:				
<input type="checkbox"/> EZ duela Estatuko beste laguntzarik jaso (1) <input type="checkbox"/> Bai, Estatuko honako laguntza hauek lortu dituela				
Laguntza eman duen erakundea	Laguntzaren xedea eta diruz lagundutako kostuak	Laguntzaren gehieneko intentsitatea (2)	Emandako zenbatekoa	Laguntzaren ehunekoa (%) (3)
2. Honako hau <b>ADIERAZTEN DU</b> : 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera				
<input type="checkbox"/> EZ duela beste minimis laguntzarik jaso <input type="checkbox"/> Bai, honako minimis laguntza hauek lortu dituela				
Laguntza eman duen erakundea	Laguntzaren xedea eta diruz lagundutako kostuak	Emandako zenbatekoa	Noiz onartu zen diru-laguntza	
3. Honako hau <b>ADIERAZTEN DU</b> : 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera				
<input type="checkbox"/> Ez duela laguntzarik lortu "Egungo ekonomia-eta finantza-krisialdian finantzaketa eskuratzen laguntzeko Estatuko Laguntzen Aldi Baterako Esparruaren" babespean (4) <input type="checkbox"/> Bai, «Egungo ekonomia- eta finantza-krisialdian finantzaketa eskuratzen laguntzeko Estatuko Laguntzen Aldi Baterako Esparruaren» babespean honako laguntza hauek lortu dituela (4)				
Laguntza eman duen erakundea	Laguntzaren xedea eta diruz lagundutako kostuak	Emandako zenbatekoa	Noiz onartu zen diru-laguntza	
4. <b>ADIERAZTEN DU</b> :				
Enpresa ez dagoela krisi-egoeran (5). Laguntza ez dela aplikatuko esportazioan, ezta merkantzia inportatuen aurrean produktu nazionalen lehentasuna ematen ere (6).				
_____, _____(e)ko _____aren _____(a) Eskatzailearen sinadura				

**AZALPEN OHARRAK**

- (1) Europako Batzordeari alde aurretik jakinarazi behar izatetik salbuesteko Erkidegoko Erregelamenduaren babesean edo Europako Batzordearen baimen-erabakiaren babespean emandako laguntza.
- (2) Laguntza mota horretarako eman litekeen eta Europar Batasunak baimentzen duen Estatuko laguntzaren gehieneko intentsitatea.
- (3) Diruz lagundu daitezkeen kostuei dagokienez, jasotako laguntzaren ehunekoa.
- (4) Batzordearen Komunikazioa –«Egungo ekonomia- eta finantza-krisialdian finantzaketa eskuratzen laguntzeko estatuko laguntzen neurriei aplikatu beharreko Erkidegoko aldi baterako esparrua»– 2008ko abenduaren 17an eta 2011ko urtarrilaren 11n hartua.
- (5) «Krisi-egoeran» dauden enpresak Kategorien araberako Salbuespenen Erregelamendu Orokorren 7. artikuluan definituta daude.
- (6) Ikus 1.3 paragrafoaren definizioa. Estatuek berme gisa emandako laguntzei EBren Itunaren 87. eta 88. artikulua aplikatzei buruz Batzordeak egindako Komunikazioaren egitura eta esparrua.